

EUROPAKO GEOGRAFIA


Kerman Bizkarra Garrido

LISTADO DE NOMBRES GEOGRAFICOS DE LOCALIZACION OBLIGATORIA

1. PAISES Y CAPITALES

2. MEDIO FISICO

Penínsulas: Escandinavia, Kola, Jutlandia, Bretaña, Ibérica, Itálica, Balcánica, Crimea.

Mares: de Kara, de Barents, Báltico, Blanco, del Norte, Cantábrico, Tirreno, Adriático, Jónico, Egeo, Negro, de Azov, Caspio.

Golfos: Bótnia, Finlandia, Vizcaya, León, Tarento.

Cabos: Norte, Finisterre, S. Vicente, Spartivento, Matapán.

Estrechos: Kattegat, Skagerrak, Canal de la Mancha-Paso de Calais, Gibraltar, Otranto, Messina, Bósforo, Dardanelos.

Islas: Islandia, Faroer, Shetland, Orcadas, Hébridas, Británicas, Azores, Madeira, Canarias, Baleares, Córcega, Cerdeña, Sicilia, Malta, Islas Jónicas, Creta, Rodas, Chipre.

Lagos: Ladoga, Onega, Peipus, Constanza, Lemán, Neuchatel, Mayor, Como, Iseo, Garda, Balatón

Ríos (ciudades importantes en las desembocaduras): al mar Blanco: Pechora, Duina Septentrional. Al mar Báltico: Duina Occidental (Riga), Niemen, Vístula (cerca: Gdansk), Oder. Al mar del Norte: Elba (Hamburgo), Wesser (Bremen), Rhin (Rotterdam), Mosa, Escalda, Támesis (Londres). Al Atlántico (Canal de la Mancha y golfo de Vizcaya): Sena (Le Havre), Loira (Nantes), Garona (Burdeos, en el estuario de la Gironde). Al Mediterráneo: Ródano-Saona (Marsella cercana). Al Adriático: Po. Al Egeo: Maritza. Al Negro: Danubio (afluentes: Inn, Drave, Save, Tisza), Dniéster, Dniéper. Al mar de Azov: Don (Rostov). Al Caspio: Volga y Ural.

Cordilleras, macizos, fosas, cuencas, llanuras:

Macizos y fosas de Escocia: Highlands, Grampianos (Ben Nevis, 1.343 m), Lowlands (fosas de Glasgow y Edimburgo), Southern Uplands. **Macizos de Inglaterra:** Cordillera de los Peninos, Macizo de Gales (Snowdon, 1.085 m), Macizo de Cornualles; Cuenca de Londres.

Irlanda: Macizos de Donegal, montes Wicklow, depresión central del río Shannon y afluentes

Alpes Escandinavos (Galdhoppingen, 2.469 m), llanura de Laponia, llanura de Finlandia.

Macizos paleozoicos: (Francia) Macizo Bretón o Armoricano, Macizo Central Francés, Ardenas, Vosgos (Francia). Selva Negra, Macizo Esquistoso Renano, Harz, Macizo de Turingia, Montes de Bohemia (Alemania), Montes Metálicos, Sudetes (R. Checa-Polonia), Lysa Gora (Polonia), macizo de Ródope (p. Balcánica). Macizo de Calabria (S. de Italia); Urales (Narodnaia Gora, 1.894 m).

Cordilleras alpinas: Pirineos (Aneto, 3.404 m), Jura, Alpes (Montblanc, 4.807 m), Apeninos (Gran Sasso, 2.914 m), Montes Tatra (Tatra, 2.655 m)-Cárpatos-Alpes de Transilvania, Alpes Dináricos, Alpes canes-montes del Pindo, Cáucaso (Elbruz, 5.633 m).

Corredores: del Rin, Corredor del Ródano Saona, fosa de la Limagne.

Llanuras prealpinas: Ebro, Guadalquivir, Po.

Cuencas: Cuenca de París, Cuenca de Suabia-Franconia, Cuenca de Panonia o llanura de Hungría (Panonia), Moldavia, Valaquia,

Llanuras: llanura del Norte Europea, llanura Central Rusa, llanura de Ucrania, Alturas del

1. **GUNE FISIKOAK:**

Gaur egun Europak 500 milioi biztanle inguru ditu, 135 biztanle kilometro karrutuko, hau da, nahiko dentsitate handia eta orekatua du. Europako dentsitate altu hau, historikoa izan da, izan ere, egokia da giza jarduerak egiteko bi arrazoi nagusi baititu:

- **Latitudea:** Zonalde epela da, latitude ertainean kokatuta baitago. Honez gain, itsasoak hainbat sarrera dituzenez, itsasoaren eragina oso handia da eta ondorioz tenperaturak epelak, hezetasun handia eta prezipitazioak ugariak dira. Gainera, ez daude basamortuak. Hau guztia dela eta, ingurune fisikoa egokia da giza jarduerak egiteko.
- **Erliebea:** erliebea egokia da, eta lautadak dira nagusi: iparraldean, nahiz hegoaldean. Mendi altuenak Alpeak dira eta ondoren Pirineoak, eta bertako mendien inguruan egokitzen dira populazio ugariena. Mosku bitarteko nekazaritza guneak oso populatuak dira. Lurraren egokitasun honen ondorioz, gizakiaren gehiegizko iharduerak ingurunea aldatzen ari dira. Honen adibide ditugu: euri azidoa, basamortizazio prozesua...

2. **ERLIEBEA:**

Mendietan hiru material bereizten dira: batetik, material plutonikoak dituzten mendiak, bestetik sedimentuzkoak direnak eta azkenik sumendiak. Material ezberdin hauen ondorioz, erliebe ezberdin bat sortzen da.

Hasiera batean dena konpaktua zen eta itsasoaren azpian zegoen, baina poliki-poliki azaleratzen joan ziren. Europa dena konpaktua zen, hori dela eta pangias deitzen zitzaion. Haustura garrantzitsua; Afrika eta Europaren artekoa da, Tetis itsatsoan. Honen ondorioz, bertan kokatzen dira haustura gehienak.

- **Erliebearen sorrera:** Europaren material zaharra prekanbikoak dira, batez ere, Eskozian pilatu dira. Material hauek ez dute entidatea erliebea sortzeko, material solteak baitira. European lehenengo materiala erliebea sortzen duena kaledoniarra da, arku kaledoniarra sortu zuena: Eskandinavian.... Hala ere, European garrantzia handiago du hertziniar garaikoak, izan ere, Europako lur gehiena azeleratu zen. Garai honetakoak dira esate baterako: Iberiar Penintsulako mesetak eta bertako mendiak, Jahz... Sudetek arte. Garai honetakoak dira Europako iparraldeko lautada (Dinamarca, Holanda...) Errusiako plataforma eta Eskandinabiako eskudoa ere garai honetakoak dira. Denak paleozoikoak dira (570.000-230.000 garaikoak).

Erliebeak garai hartakoa eta gaur egungoa ez du zer ikusirik. Nahiz eta materiala garai hartakoa izan, erliebe beste garai batekoa da. materialak gogorak dira; granitoa, kristalizatuak, plutonikoak ageri dira. Higatuak izango dira, ondoren azpira joango dira gainean material gehiago utziz. Azpikoak,

kristalizatuak izango dira, plutonikoak, hau da, gogorrak. Kaleniarrek eta hertziniar garaikoak material gogorrak dira, esate baterako, granitoa, eskistoa, are gogorra...

- Mesozoikoa (250.000-65.000): Ez dago ia indar tektonikorik, hori dela eta, materiala higatu eta sedimentatu egingo da. Material hau ordokietan eta itsasoan sedimentatuko dira, batez ere Tetis itsasoan, garrantzi handia hartu zuena.

- Erosio zikloaren bilakaera teorikoa: <http://glosarios.servidor-alicante.com/geologia/ciclo-de-erosion>

- Zenozoikoa (65.000-gaur egun): Plegamendu alpinarra, orogenia alpetarra gertatzen da. Tektonika mailan, oso bizia izan zen, garai potenteena. Garai honetan erliebe guztia berpiztu egin zen eta gaur egungo erliebea sortu zen. Beraz, plegamendu alpinoaren ondorioz, Europako azken lurra altxatu eta azaleratu egin ziren, hori dela eta, mendikate garrantzitsuenak alpinoak dira.

Tetis itsasoa mendebaldeko itsasoarekin juntatu zen, eta ondorioz, materiala azaleratzen hasi zen: Alpeak, Pirineoak, Apeninoak, Beltika, Kataluniako kordillera, mendi Pindoak, Balkanak, Rodope eta Karpatoak Europako mendi altuenak dira.

Indarraren ondorioz, zonalde batzuk altxatu egin ziren altura handiak sortuz, hala ere, beste zonalde batzuk sakan bihurtu ziren. Sakan hauek itsasoa bereganatu zuten, esate baterako; Po bailara, Guadalquivir, Ebro, Toscana, Hungaria, Rumania.

- Ebro: Itsasoa barrura sartu zen, baina Kataluniako Kordilerak pasoa kendu zion. Ondorioz, zuloa sortu zen, Ebroko delta dena hain zuzen ere. Zulo honetan materiala metatzen joan zen poliki-poliki.

Plegamendu alpinoak beste zonalde batzuetan izan zuen eragina. Lehen aipatutako material zaharrak erliebe berriak berpiztu zituen, esate baterako: Eskandinabiako mendikateak, Highlands, Gales, Korduales, Peninos, Bretaniako mendiak, Frantzia, Alemania, Holanda eta Belgikako mendikateak. Mendien indar hauekin haustura batzuk sortu ziren, ondorioz, mendikate batzuk altxatu egin ziren baina beste batzuk behera egin zuten, ordokiak sortuz. Fenomeno hau hegoaldeko indarra da.

Hegoaldeko indar honek, iparraldean du eragina, izan ere iparraldea inklinatu egin zen. Indarra mendebaldea eta Noruegako dortsala bultzatu zuen. Honek haustura sortu zuen, goruntz egin zuen baina oso gutxi, inklinazio bat sortuz. Inklinazio hau ipar lautadako inklinazioa da. inklinazio honen ondorioz, itsasoaren mailak gora egiten badu uholdeak gerta daitezke eta horri aurre egiteko bunkeak eraikitzen dira. Salbuespena Iberiar Penintsula da. Bertan, mendi berriak eta ibaiak sortu ziren. Indar tektoniko hauek materiala gora altxatu zuten, bi meseta sortuz. Meseta hauetan, materiala oso gogorra denez ez da hausten, hala ere, badira haustura puntu batzuk mendiak sortzen dituenak: Iberiar mendikateak, Kordilera zentrala, Sierra Morena, Kantabriar mendiak.

Azken urteetan sedimentazio prozesua eman zen eta higadura prozesu horretan, glaziazioa ematen da. Glaziazioa eta pre-glaziazioa iparraldean ematen da, non neguak oso hotzak dira baina udak, eguzkiaren indarra dela eta izotza urtzen du. Nahikoa da 2º-3º jaitea neguan sortutako izotza ez urtzeko, ondorioz, izotza metatzen eta akumulatzen doa. Glaziazio fenomeno hau Londres, Amsterdam... altitudera iritsi zen. Izotzaren ondorioz, 200m-ko mendiak sortzen dira, higadura ematen da, hori dela eta, akumulazioa ematen da.

Pre-glaziazioa, aldiz, itsasoak gora egitearen fenomenoaren ondorioz ematen da, iparraldeko kostaldea inundatuz.

Plegamendu alpinoarekin, metatutako materiala plegatu egin zen. Beste material batzuk hautsi egiten dira; gora, behera edo mantenduz. Honek konportamendu eta erliebe ezberdinak sortzen ditu.

3. EUROPAKO ERLIEBEA:

Hiru unitate mota nagusi daude: Lautadak, mendikate zaharrak edo mendikate alpinoak

- Lautada:

Europan dute presentzia gehiena eta lau mota daude:

- Europako ipar lautada: Ingalaterrako hego-erdialdetik eta ekialde osoan hasita, Normandia, Frantzia, Belgika iparralde (zonalde flandiarra), Holanda, Polonia, Alemania iparralde, Danimarka osoa, Poloniako zonalde gehienak, Errusia, Suedia eta azkenik Finlandiak osatzen dute. Esan daiteke, Iparraldeko zonalde gehiena osatzen duela.

Bedez agertzen dena (0-200m)



- **Materiala:** Erliebearen sorreraren arabera, hertziniar orogenian azaleratu ziren. Zenoziokoan (65.000) plegamendu alpetarrak lautada honi inklinazioa ematen dio,


itsasoruntz. Ez du asko sufritu indar tektonikoa, inklinazioa jasan dute. Berez material zaharrez dago sortua, baina material hauek ez dira ikusten. Lautada guztien gainean sedimentutako material berriak daude, bigunak direnak.

- **Paisaiak:** Ez da guztiz laua, izan ere, fenomeno bate maten da; aldapa paisaia delakoa. Sedimentatutako materialen artean beti dago gogorrago bat, higadura ondo jasaten dutenak, erresistentzia gehiago dutenak. Material hauek gailurretan agertzen dira eta altura gutxiko tontorrak sortzen ditu, 100 metrokoak inguru.

Zenbait kasutan, bereziki kosta aldean, itsasoak oso altura gutxi dauka. Hori dela eta, lurra poliki- poliki itsasoa barneratzen joaten da, padurak oso zabalak sortuz. Padura hauek oso zabalak dira eta oso ohikoa da dunak egotea, baita itsasoaren gorabeherak kontrolatzeko dikeak izatea, ondorioz, askotan lautada hauek artifizialak dira, Holanda da honen adibiderik garbiena. Dikeak egiten dituzte eta barrukoa lehertzeko kanalak erabiltzen dituzte, lur artifizialak sortuz, zeinak oso produktiboak diren nekazaritza arloan.

- **Mendikate zaharrei lotutako lautadak:** Mendikate zaharrak batez ere Europa erdialdekoak dira. Zonalde hauek hautsi egiten dira eta ondorioz, blokeak sortzen dira batzuk gora egiten dutenak (Horst) eta beste batzuk behera (Graven). Adibide garbienak dira, Ohian Beltza eta Rhin ibaia. Graven egitura ikusten dugu: Loira ibaian, Mosela ibaian, Rhin ibaian, Wesser ibaian eta Elba ibaian. Gravenetan material bigunak ikusiko ditugu, sedimentatutako materialak dira; hala nola buztina. Sortzen den paisaia, laua da, sedimentatuako lautadak hain zuzen ere. Lur hauek oso emankorrak dira nekazaritza arloan. Graven garrantzia du, izan ere, Iparraldea eta Hegoaldea konektatzen du. Iparraldean hiriak gehiago garatzen dira hegoaldean baino non bertan etxe orratzak dira ugariak. (Frankfur adibidez).
- **Hegoaldeko lautadak:** Plegamendu alpinoaren ondorioz sortutakoak dira. Zonalde batzuk altxatu (plegatu) egiten diren bitartean, beste batzuk Itsaso azpitik edo ondoratzen dira. Honen adibide ditugu: Tajoko depresioa, Guadalquivirreko depresioa, Ebro, Kordillera Kostero Katalana, Valentzia, Suitzako arana, Akitania, Babiera, Po, Munich, Toskana, Lazio, Florentzia, Erroma, Hungaria eta Valaquia. Depresio garrantzitsuenak; Aral, Kaspio eta Baltiko aranetan sortzen direnak dira.

Materialei dagokionez, sedimentatutako material berria da. Hori dela eta, paisaia ez da erabat laua, aldapa paisaia oso ohikoa



- da. Zonalde hauek oso emankorrak dira nekazaritza arloan, eta tradizionalki oso populatuak izan dira. Gainera, hauetako asko itsaso izan ziren, eta ibaiak poliki-poliki itsasoari jan dio lekua.
- Bere kabuz sortzen diren lautadak: Zenbait kasutan ez dago indar tektonikorik ez ezer, besterik gabeko materialen metaketa ematen da; itsasoak arrastoak uzten dituelako edota mendietatik higatutako materialengatik. Honen adibide garbia da Parisko lautada, non materialak progresiboki metatzen joan diren eta azkenean azaleratu egin dira. Material hauek, bigunak eta sedimentatutakoak izan ohi dira. Sedimentatutako material guzti horiek berdinak ez direnez, aldapa paisaia ematen da. Oso zonalde emankorrak eta tradizionalki populatuak dira.

- Mendikate zaharra, mesetak, zokaloak:

Europako erdialde osoa hartzen dute, Portugaletik hasita, Txekia eta Polonia bitartean mendikate zaharrez dago osatuta. Garrantzitsuenak honako hauek dira: Sierra Morena, Kordillera Zentrala, Galizia, Kantabriako mendiak, Iberiak mendikatea, Frantzia erdialdeko Mazizoa, Bosgos, Ohian beltza (Alemanian), Iparraldeko Ardenak (Belgika, Luxenburgo eta Frantziaren zati bat hartzen dute, Harz, Alemania hegoaldean Erzberg, Bohemiako basoa, Turingiako basoa, mendi Metalikoak eta Sudeteak, Renaniako mendiak.

Berez material zaharrez osatutako mendikateak dira, baina plegamendu alpetarrarekin altxatu egin ziren, normalean hausturak edo failak sortuz. Orokorrean nahiko altura gutxi dute, hori dela eta, gutxitan gainditzen dituzte 1000 metroak. Salbuespena Frantziako erdialdeko Mazizoan dago, non 1800 metro pasatzen dituzten, sumendiak izanik (Puy de mendi altuena 1886 metro dituen).

Zonalde hauek, depresio gune ondoan daude eta bertan ez dago oso populatua, inguruetan kokatzen da populazioa. Oihan eta basoz osatutako zonaldeak dira, batik bat, pagadi eta izeiez osatuak. Ezagunena Oihan Beltza da, Alemanian. Fenomeno bera gertatzen da Ingalaterra eta Irlandan: Highlands, Granpians, Southern uplands, Peninoak, Galeseko mendiak, Kornualles, Bretaina edo armonika. Hala ere, Ingalaterran eta Irlandan berezitasun bat dago Europako erdialdearekin, bertan ez daude basoak ez oihanik, izan ere, industrializazioa dela eta basoetako zuhaitzak ebaki zituzten eta gaur egun ez dira hazi. Gaur egun gobernuak zuhaitzak lantzeko politika burutzen ari dira egoera hau aldatu nahian.

Mendikate zahar hauek oso borobilak dira. Materialari dagokionez, material zaharra gailurretan agertzen da, honako mailaketa sortuz: granittoa azpian, eskistoa erdian eta hondar are oso gogorra gainean. Gainean material biguina dago baina blokea altxatzean, urak higatu egiten du material gogorra azaleratuz.




- **Mendikate Alpetarrak:** Europako mendi altuenak bi motatakoak dira:

- Plegamendu Alpetarrarekin azaleratutako mendikateak: Kordillera Kostero Katalana, Euskal mendiak, Pirinioak, Alpeak, Apeninoak, Karpatoak, Balkanak, Dinarikoak, Pindo mendiak, Rodopeak, Kaukaso.

Hauetako mendi gehienak, esate baterako; Pindoak, Apeninoak edo Karpatoak mendi altuak dira, baina ez dute 3000 metro gainditzen. Materialak orokorrean sedimentarioak dira eta nagusiena kareharria da, zeina gailurretan geratzen den islatuta.

Indarrak oso fuerteak eta handiak izan direnez, azpiko materiala goian agertzen da, baina material hau desplazatua egin da. Fenomeno hau Pirinio eta Alpetako zonaldetan ematen da.



- Mendikate zaharrak baina indar tektonikoak hain indartsuak izan direnez, 2000 metro erraz gainditzen dituzten mendikateak dira. Mendi zaharrak dira berez, baina mendikate alpetarren eragin handia jasan dute eta sortutako paisaiak benetan alpinoak izaten dira. Bereziki Iberiar Penintsulan; Picos de Europa eta Sistema Zentrala esate baterako. Eskandinavian ere ageri dira mendikate hauek; Eskandinaviar mendiak adibidez.

4. **MAPA GEOLOGIKOAK:**

- **EUSKAL HERRIA:**


- Mendikate zaharrenak primarioak dira, eta materialari dagokionez, azpiko blokeak gora egin zuenez granittoa da material nagusia mendi hauetan, hau da, material gogorak dira ohikoak. Mendikate hauen adibide ditugu Aiako harrietatik hasita Baztaneraino doazen mendiak. Mendikate hauetan, lehen esan bezala, azpiko blokeak gora egin zuen eta ondoren higadura prozesua eman zen.
- Mendikate berriak kuaternariokoak dira, Ebroko depresioan, Herri-beheran azaleratu ziren.
- Triasico- jurasikoa: lehen itsasoa zen, hala ere, orogenia alpetarraren ondorioz azaleratu egin ziren material mesozkoikoko mendikate batzuk. Mendikate hauek Euskal Herriko iparraldean daude (Aiako Harriak ez). Bertako lur gehiena higatua izan da.
- Gasteizetik-Iruñera: Material berriagoak dira, eozonekoak hain zuzen ere, hala era orogenia alpetarrean azaleratu ziren. Zonalde hau sakongune edo zulo bat da, plegamendu alpinoaren sortu ondorioz.

- **FRANTZIA:**

- o **Erliebe unitateak:**

- **Mendikate zaharrak:** Frantziako Erdialdeko Mazizoa, Bosgos (oihanak dira), Iparraldeko Ardenak, Britainia edo Armonika, Nizako kostak, Kosta Urdina (granittoa kostaraino iristen da). Mendikate hauen ezaugarrien inguruan, mendikate borobilak eta altuera txikikoak direla esan beharra dago 300 metroko mendikateak baitira, Puy de Sancy mendia izan ezik, izan ere mendikate bolkanikoa denez 1.885 metroko altuera du. Bosgos tartean, Rhin ibaia eta Oihan beltza dago; non Horst eta Graven baten ondorioz sortu zen. Bertako materiala, eskistoa edo granittoa esate baterako, altuera gutxi hartu zuten. Bertako zonaldea basoa da, izeiaz eta pagadiak nagusitzen direnak. Mendikate hauen materialari dagokionez, granito, eskisto eta are gogorak ikusi ditzakegu, hau da, material gogorra eta zaharra.
- **Mendikate Alpetarrak:** Pirinioak eta Alpeak dira, eta bere gailurretan granito materiala nagusitzen da.
 - Pirinioko azpiunitateak: Indarrak oso fuertek eta handiak izan direnez, azpiko materiala goian agertzen da, baina material hau desplazatua egin da. hori kontuan hartuta, pre-Pirinio bat dago Iruñeako sakanak osatzen duena.

- Alpeetako azpiunitateak: Mendikate plegatuak eta hautsiak dira. Jura mendiak, sedimentatutako material plegatutako mendia 1.500 metro dituen, pre-Alpea sortzen du. Ondoren Rodano ibaia igarotzen da Suitzako lautada den zonaldean eta gero Alpeak datoz, non Mont Blanc mendia nagusitzen den 4.810 metroko



Lautada:

- o Ipar lautada: Normandian nagusitzen da, paleozoiko garaian altxatutakoa lautada. Plegamendu Alpetarraren ondorioz, iparralde itsasoruntz inklinazio eman zion.
- o Mendikate zaharrei lotutako lautada: Rhin eta Loira ibai inguruan sortzen dira.
- o Hegoaldeko lautada: Itsaso ^{alpeetako mendien lehen baxalde} Suitzako lautada le bat da; Akitania, Po eta Ebro inguruan. Bertan material sedimentarioak ikusi ditzakegu.
- o Bere kabuz sortutako lautada: Pariseko lautada da; Bordeaux-etik hasita, Champagne bitarte Pariseko lautadara iritsi arte. Zonalde guzti hau itsaso azpian zegoen, baina zenoziokoan kontinentearen itxura hartzen joan zen, bertan bestetik gabe materiala finkatzen joan zen gehienetan beste mendietatik etorritako materialak dira, bata bestearen gainean metatzen joan direnak.

ALEMANIA:Erliebe unitateak:Lautada:

Ipar lautada: Inklinazioa du itsasorantz, ondorioz, lurraldearen zati handi bat inundatu egiten da. Hala ere, zonalde batzuk itsas maila baino gorago daude eta horiek erabiltzen dira landatzeko.

Mendikate zaharra: Graven fikzioaren ondorioz sumendiak sortzen dira bertako materialak zaharrak dira, gogorrak. Pasaia aldetik, mendikate borobilak sortzen dira.

HOLANDA:

Holanda Rhin ibaiaren ondorioz sortutako delta handi bat da. Rhin ibaiak zonalde honetan adar ezberdinak sortzen ditu.

Erliebe unitateak:

Hiru zona ezberdintzen dira Holanda:

- 1) Itsasoaren azpitik dauden zonaldeak padurak dira.
- 2) 0-1 metro bitarteko zonaldeetan, material biguinak eta sedimentatutakoak aurkitzen dira.
- 3) 1 metrotik gorago dauden zonaldeetan:

Kosta: kosta duna handi bat da, bertan finkatu dena eta landaretza duena. Itsasoak gora egiten duenean uholdeak kontrolatzeko dikeak egiten dira, baita ibaiak gora egiten dutenean ura kontrolatzeko ere. Dike hauek egitea oso garestia da, izan ere, herrialde honen arazoa harria ez dutela da. Hori dela eta, inportatu egin behar dute eta horrek itsasoari irabazteko



prozesuaren kostua areagotzen du. Guzti honen ondorioz, gaur egun prozesu honek garrantzi gutxiago hartu du.

Barrualdea: Holandan uraren presentzia oso handia da, izan ere, itsasoaren mailatik oso metro gutxitara dagoenez, itsasoak eta ibaiek gora egiten dutenean uholdeak sortzen dira. Hori saihesteko dikeak sortzen dira, etengabeko presentziaren sentimendua sortuz. Izan ere, dikeen gainean egiten dira karreterak besteak beste.

Lautada: Lautadak artifizialak dira eta hauen mugak errektangularrak dira. Holandako lautada, ipar lautadaren barruan kokatzen da. Ipar lautada orogenia hertziniarrean azaleratu zen eta indar alpinoaren ondorioz zonalde batzuk gehiago hautsi ziren, gora eginez eta mendikate zaharrak eratu. Mendikate hauetan granito, hondar are gogortua eta eskistoa bezalako materialak ageri dira. Hala ere, mendikate haiek ez dira 300 metro baino garaiago.

Beste bloke batzuk, aldiz, gutxiago hautsi ziren eta ipar lautada eratu zuen, inklinazioa ematen diona ipar itsasorantz, progresiboki.

Ipar lautada glaziarra izan zen, nahiz eta momentu honetan itsasoaren mailaren inguruan dago. Hori dela eta, elementu borobilduak glaziarrek utzitako arrastoek markatzen dituzte. Ipar lautadan azaltzen diren materialak buztinak dira eta hauek oso emankorrak dira nekazaritza arloan.

Paisaiari dagokionez, Holandan ere ipar lautadetan ematen den fenomeno aurkitzen da, aldapa paisaiarena hain zuzen ere.

Holandan aurrerapen teknologiko handiak ematen dira; alde batetik, itsasoari irabazteko prozesuan, dikeak eraikiz. Bestetik, tulipanen lanketan. Tulipanak produktu tropikalak dira eta Holanda iparraldeko lurralde bat izanik, bertan kultibatzea aurrerapen teknologikoaren isla da.


Holandako punturik baxuena, itsasoaren azpitik 6,74 metrotara dago, Zuidplaspolder (hegoaldea), punturik altuena aldiz, 300 metro inguru ditu.

- **ITALIA:**

- Erliebe unitateak:

- Mendikate Alpetarrak:

- Alpeak eta Apeninoak mendikate alpetarrak dira. Mendikate hauetan material berri ezberdin asko daude: kareharria, hondarrak, buztinak...



higatzeko errazak diren materialak dira, ondorioz, altuera ezberdineko mendiak agertzen dira. Material berri hauen gainean, material zaharrak kokatzen dira, granittoa eta eskistoa esate baterako. Mont Blanc, adibidez, Alpeetan kokatzen da. Granittoa eta eskistoa bezalako material zahar hauek lur azpian kokatzen ziren eta orogenia alpetarraren ondorioz, behetik goranzko mugimendua egin zuten puntan geratu arte, eta mendiaren behealdean kareharria geratuz.

Dolomitak txikiagoak dira eta Alpeetan kokatzen dira, kareharrizkoak dira, 2000-3000metrokoak.

Fenomeno hau ere Pirineotan gertatzen da, izan ere orogeniak oso gogor jotzen die Mediterraneotik.

Apeninoetan kareharria nagusitzen da, Alpeak bukatu ondoren hasten dira eta, Siziliaraino iristen dira. Ez dira hain altuak, mendikate tolestuak dira, sedimentatutako materialak dira eta material ezberdin askoz daude eratuta. Apeninoetan: fliş (glaziarrek nahastutako belarra eta buztinak dira), margak, buztinak ... kokatzen dira.

Apeninoak ditugu Siziliatik Genoaraino. Sedimentutako orogenia alpetarrarekin tolestutako material buztindunekin.

- Alpeetako azpiunitateak: Bailara glaziarra dago, Alpe granitikoaren eta eskistoen artean. Jura izango da Aurrealpea (Irudi honetan agertzen ez den arren). Alpeak bukatu ondoren laku glaziarra kokatzen da eta ondoren, harrizko dike naturalak, Po bailara hasten den tokia izango litzateke.



- Lautada:

- Hegoaldeko lautada: Po bailara hegoaldeko glaziarrek utzitako materialak, material berriak, ditu eta gravena izango litzateke. Material zaharragoak dira iparralderago kokatzen direnak, behe aldekoak edo hegoaldekoak berriagoak dira.

Po bailarako zonalde altuena eta zaharrena da, Torino, Milan 300-400m ... Jaisten den heinean, sedimentu berriagoak nagusitzen dira eta Venezian graven batean, hau da, padura batean amaitzen dugu, itsasoaren maila zerokoa da, bertan.

Toskanako lautada ere hegoaldeko lautada da, non depresio gunea eta sumendia dagoen bertan.

Takoiko lautada, Ajuriakoa, kareharrizkoa da eta material berriak ditu. Itsasotik azaleratutakoak dira eta ondorioz, sedimentu asko dituzte Apeninoek.

- **PIRINEOAK:**

- Erliebe unitateak:


- Lautada:

- Hegoaldeko lautada: Hegoaldeko lautada da Ebrokoa, eta, Pirinioak gora egitean sortutako den depresio gunea izango da Ebrokoa. Lautada sedimentario berria izango da. Erliebea ez da erabat laua izango. Zenbait lekutan sedimentu batzuk gogorrakoak izango dira, beste batzuk baino, hori dela eta, ibaiari hauek higatzea zailagoa izango zaio.

Kataluniako Kostaldeko Mendikateak itxi egin zien bidea eta bertan irekitzen du bere delta, Ebrok. Kataluniako Kostaldeko Mendikatean kareharria eta hareharri gogortua izango da gehien,

hau da, material berriak. Gainera, material hauek tolestuak izango dira.

Honetaz gain, Akitaniako lautada dago. Iparraldean



dago eta honek ere hegoaldeko lautadari dagokio. Akitaniako zati bat itsasoa zen iraganean. Akitaniako lautada itsasora zabaltzen da, Ebro ez bezala (mendi artean geratzen baita). Beraz, Akitaniako lautada itsasoari irabazitako lautada da.

- Mendikate Alpinoak:

- Pirinioak: Aurrepirinioak kokatzen dira lehenengo, ondoren, sakonuneak daude eta azkenik, Pirinioak daude (material zaharragoak zenbait zonaldeetan eta beste batzuetan, kareharria eta granitoaren artean arbela kokatzen da zonalde axiala deitzen dena). Iparraldean, Pirinioetan, Akitaniako lautada segituan hasten da.


Piriniotan, ardatzeko Pirinioak eta Aurrepirinioak bereizten dira.

- Ardatzeko Pirinioak: Nafarroako ipar eta ipar-mendebaldean eta Gipuzkoako ekialdean daude zabaldua. Ez dira oso mendi altuak, egitura konplexuak daude (tektonikoak), eta material paleozoikoz (granitoa, arbelak, kuartzitak eta eskistoak) daude osatuta, hareharriak eta konglomeratuak ere badauden arren. Adibide dira: Aiako Harria, Bortziriak, Orotz-Betelu eta Kintoko mendiguneak. Kuartzitek paisaia malkartsuak sortzen dituzte. Ibaien jardura biziak haitzarte sakonak sortzen ditu: Bidasoa harana esate baterako.
- Aurrepirinioak: Pirinioen ardatzaren iparraldean karreharrizko Aurrepirinioak daude, ardatzari lotuta. Iparralderantz eta mendebalderantz egin ahala, altuera txikiagoa dute, eta erliebe leuna osatzen dute. Horretaz gain, forma ikusgarriak ere ageri dira arroiletan eta glaziarretan.

Ardatzeko Pirinioen hegoaldean, bi lerrokatzetan antolatzen dira mendilerroak; barrualdeko mendikateak eta kanpoaldeko mendikateak, eta bi horien artean, barrualdeko sakonunea.

- Barrualdeko mendikateak kareharrizko Aurrepirinioak, ardatzari lotuta daude, eta bertan ageri dira mendirik altuenak: Hiru Erregeen Mahaia (2.428m), Ezkurre (2.050m), Orhi (2.021m)... Gain malkarrak eta arroilak ageri dira.
- Barrualdeko sakonunea: *Flysch* eta tuparriz osaturiko arroak daude. Irunberrin hasi, Iruñetik jarraitu, eta Arakil korridoreraino hedatzen da. Ibaiek arroilak eratzen dituzte, hala nola, Arbañum, eremu hori perpendikularki ebakitzearen ondorioz.
- Kanpoaldeko mendikatean, sakonunearen hegoaldean, txikiagoak dora; Erreniega, Alaitz, Izko eta Leire. Mendikate horiek jarraipena dute Andia, Urbasa eta Toloño mendilerrotan.

Depresio gune bat dago, Zaragoza- Ebroko depresioa hain zuzen ere. Honetaz gain, antiklinalak eta sinklinalak daude; lehen antiklinalaren ondorioz, hau da mendikatea



plegatzen hasten da, batzuk gora (antiklinala) egiten duten bitartean, beste batzuk beheara (sinklinala) egiten dute. Bertako materiala, material berriak dira itsasoak eramandakoa. Honetaz gain, azpiko blokeak gora egin duenez, desplazatu egin da, gailurretan kareharria agertuz. Azkenik, esan beharra dago zuzenean bukatzen dela Akitanian, non desplazatutako materialak mendikatea txikiak sortzen dituen.

- **SUITZA:**

- Erliebe unitateak:

- Mendikate Alpinoak: Aurrealpeak Jurako mendiak izango lirateke, gero Suitzako lakuak eta ondoren, Alpeak kokatuko lirateke (Suitzak Alpeen zati txiki bat baino ez du hartzen). Mendebaldeko alpeak: Dolomitak orratz handiak dira, altuera gutxiagorekin. Bertako gailurrak koralezkoak dira. Alpeetako gailur altuena ikus daiteke Oberlandeko lurraldetik.

Jurako mendikateak biribilak eta ez oso altuak dira.

- Lautada: Lautada 50km inguru baino ez da zabaltzen. Sedimentazio glaziarrek dira batzuetan mendi txikiak egiten dituztenak eta, beste batzuetan, mesetak egiten dituzte. Hori dela eta, bailarako eta alturako lakuak bereiz ditzakegu.

- **IBERiar PENINTSULA - PORTUGAL:**


- Erliebe unitateak:

- Lautada:

- Hegoaldeko lautada: Tajoko depresioa
 - Iparraldeko lautada: Portugaleko erdialdetik gora gutxi gorabehera hasten da. Braga eta Oportoko zonaldeak hautsi egin dira, indarraren ondorioz. Zonalde honek Galiziarekin antza handia du.

Hegoaldeko lautada eta Iparraldeko lautada itsasoratzeaz gain, bi lautada mota hauek banatzen dituen zonaldea, Sistema Zentralea da. Sistema Zentraleko mendikateak, altuak dira, horst dira eta (gora egiten duten blokeak). Mendikate altu hauek, mendikate zaharrak dira, Sierra Estrella, Algarve eta Galiziako mendiak adibidez.

- Mendikate zaharrak: Galizia, Sierra Estrella eta Sierra Morena bezalako mendikateak dira.



- Mendikate Alpetarrak: Itsaso azpian egon diren materialak azaleratzearen ondorioz sortutako mendikateak dira. Honen adibide ditugu Extremadura deituriko mendikateak, nahiz eta mendikate ez oso altuak izan.

Ibai gehienak mendebaldera daude inklinatuta, mendi altuenak Burgosen igotzen baitira. Iparraldeko meseta gehien igota eta inklinatuta dago eta, hegoaldekoa gutxien.


Bi meseta daude; batetik, Madriletik gora dagoen iparraldeko meseta eta bestetik, Madriletik hegoalderako meseta. Meseta hauek hautsi egin dira zenbait zonaldetan, esate baterako: Galiziako Mendietan, Sierra Estrellan (Sistema Zentrala) eta Algarven; indarraren ondorioz. Fenomeno honen ondorioz, Galiziako mendien ondoren Oporton jarraitzen du Ipar mesetak

- BRITANIA HANDIA ETA IRLANDA: → *Erlike baxua.*

- Erlike unitateak:

Mendikate zaharrak: Highlands da mendikate zaharren adibide bat. Bertan, nekazaritza oso txarra da, eta landaretza pobrea tundra itxurakoa. Mendikate txikiak eta borobilak dira, basorik ez dutena izan ere, industrializazioarekin basoak moztu zituzten egurra behar baitzuten, eta gaur egun ez dira gehiago hazi. Mendikate hauek material zaharrez sortu dira, plegamnedu alpinoarekin altxatu direnak. Zonalde oso turistikoa da. Bertako klimaren inguruan, udak freskoak dira 12º inguru eta neguak ez dira oso hotzak 3º ingurukoak.


Mendikate zahar hauek Britaniako iparraldean kokatzen dira, eta Horst-ak dira, hau da, goraegin duten blokeak dira.



- Lautadak

- Ipar lautada: Britania handiko hegoalde zonaldea da, hertziniar garaikoa eta aldapa paisaia duena.

- Mendikate zaharrei lotatutako lautada: Graven garbiak dira Irlandan eta Britania iparraldeko zonaldeak. Populazio gehiena bertan ezartzen da, material berriak izaten dituzte, kuarternarioko mendietatik higitutakoak, eta depresio guneak dira, oro har.
- Bolkanismoa: Irlandan oso ohikoa da
- Korteia: Iparraldetik hegoaldea
 - Iparraldeko lautada:
 - Paisaia: Aldapa paisaia nagusitzen da.
 - Materiala: Zaharrak oso azpian dauden bitartean goian, aldiz, sedimentarioak agertzen dira (kareharria, buztina, hondarra...). Altuera handietan material gogoragoak kareharria bezala, ikus daiteke. Metaketari dagokionez, horizontalak dira, baina ez erabat izan ere plegamendu oso oso txikia dute.



5. EUROPAKO KLIMA:

Bi elementu garrantzitsu daude klima baldintzatzen dutenak: Alde batetik, latitudea eta bestetik, itsasoko hurbiltasuna:

↳ Ispien inklinazioa  zozenagoak...

- **Latitudea:** Europa latitude ertainean dago; latitude baxuena 35° latitudea da, Kreta. Latitude altuena, aldiz, 60°koa da Eskandinavia. Beraz, lur gehienak zirkulu polarretik behera daude. Hori dela eta, klima epela da, eta kontraste handirik gabekoa.

Latitudearen eragina garrantzitsua da gune atmosferiko iraunkorrak latitudearen arabera kokatzen direlako: Ekuatorean, borrasak kokatzen dira; Tropikoan, aldiz, antizikloiak, baita ipar poloan ere. Europa ez da gune atmosferiko iraunkor hauetan kokatzen, ondorioz, urtaroaren arabera klima aldatu egiten da. Urtaro gehiengotan borrasak ditugu, gune horretan aire masa hotzek (artikotik etortzen direnak) eta beroek (tropikotik etortzen direnak) talka egiten dutelako, fenomeno honi Islandiako beherapen termikoa deritzo. Baina eguzkiak jotzen duenean uda bitartean, borraskek eta antizikloiek gora egiten dute antizikloia Europako zonaldean kokatuz. Fenomeno honen ondorioz, tenperaturak berotu egiten dira eta klima egonkortu egiten da.

- **Itsasoko hurbiltasuna:** Europa penintsula bat da, Eurasia kontinenteko penintsula, zeinean itsasoak hainbat sargune dituen. Hori dela eta, itsasoak denbora gehiago behar du hozteko eta berotzeko; hau da bitarte termikoaren bitartez eragiten du. Itsasoa Eskandinavia inguruan izoztu egiten da, nahiz eta izozte horiek partzialki gertatu. Bertan, ura oso geldia da eta horrek itsasoa izozten laguntzen du. Horrela, itsasotik hurbil dauden lurretan udak nahiz neguak epelagoak izango dira. Itsasotik urruntzen garen heinean, aldiz, temperatura aldaketak bortitzagoak izango dira. Izan ere, neguak askoz hotzagoak dira, baina gero lurra lehenago berotzen da.

Siberiako antizikloiaren ondorioz, borrasak antizikloi bihurtu eta zonalde horietan (Mosku, San Petersburgo, Belgrad...) aurkitzen ditugu tenperaturarik baxuenak. Siberiako antizikloia, Siberian negu osoan zehar egon ohi den goi presio guneari deritzo. Presioa normalean 1040mb baino altuagoa izaten da eta nahiz eta neguan indar gehien duen, urte osoan zehar antzerako kokalekua mantentzen du. Goi presio gune honek, ipar hemisferioan neurtutako tenperaturarik baxuena eta presiorik altuenaren erantzule da eta bere eraginez Siberian prezipitazioak urriak izaten dira urte osoan zehar. Siberiako gunean, lurraren gainean dagoen haizea hoztu egiten da eta ondorioz pisua irabazten du, antizikloia sortuz. Puntu hotzera irailan agertzen da Errusian, non garai horretan

eman diren elurteak neguan izoztu egiten diren eta kasu batzuetan apirila-maiatza bitarte geratzen da izoztua, baina eguzkiaren eragina txikitzen den heinean haize hotz astunaren hedadura zabaltzen doa, beste lurralde batzuetara iritsiz, kasu batzuetan Frantziaraino iristen dena.

Jet Stream 45^oko latitudean dagoen haize korrante iraunkorra da, munduari buelta ematen diona. Korrante horrek mendebaldetik ekialderako norabidea du. Korrante hori 4000/5000 metrotan dabil, eta hezetasuna eta euria ekartzen du. Jet Stream delakoaren eragina aldatu egingo da urtaroaren arabera, izan ere, udan Londresetik gora kokatzen da haize korrante hori eta neguan Londresetik behera.

Bi hauetatik gain, altitudea eta erliebearen noranzkoak garrantzia izango du kliman.

- **Altitudea:** 0,6/1^o bitarteko temperatura aldaketa egongo da 100mbakoitzeko. Horrez gain, eragina izango du prezipitazioetan; izan ere, mendien altuera dela eta haizea igo egiten da, hoztu egiten da, eta ondorioz prezipitazio bihurtzen da.

Prezipitazioak ere oso nabariak dira kostaldean: Cadizen ("Estrecho"ko haizearen ondorioz), Donostian, Galizian...

- **Erliebearen norabidea:** Borraska gehienak mendebaldetik datoz, eta ondorioz, Europako erliebe gehienek mendebalderako norabidea dute. Hori dela eta, mendi gehienek ez dute oztopo handirik suposatzen, baina badaude salbuespenak. Haizearen kontrako norabidea harrapatzen duten mendi horietan haizeak talka egiten du; talka egiterakoan haizeak gora egiten du, hoztu eta prezipitazio bihurtzen da. Fenomeno hau gehien gertatzen den lurraldeetan; Irlandako kostan, Britainia handiko mendebaldeko kostan eta Norvegia dira besteak beste. Kostan jasoko diren prezipitazio gehienak mendi horien ondoko kostetan jasoko dira.

- **KLIMA MOTAK:**

Politika guzti hau martxan jartzen da 60ko hamarkadan, nahiz eta Europan 70ko hamarkadan hasten den funtzionatzen. Garai honetan, politika hauek martxan jartzen direnean, Europak inportatu egin behar du. Hala ere, helburuak lortzen ditu, eta 80ko hamarkadan beste arazo bat sortzen da; 10-15 urtetan, superproduktzioa izan zela; hala nola, esnea, ardoa, haragia... behar zena baino gehiago produzitzen baitzen. Hori dela eta, nekazariei kuotak jartzen zaizkio. Honen ondorioz, desorekak sortzen dira herrialdeen artean, hainbat faktore direla medio:

- 1) Ustiategia Gutxi gorabehera Europak 12.000.000 ustiategi ditu, zeinak eredu familiarra duten, salbuespena ekialdeko ustiategiak dira. Bertan, jabeak beraien lurra erreklamatu zituzten, komunismoan egon ziren kooperatiben ondoren. Nekazal Batasunaren Politikako helburua, ustiategiak handitzea zen, izan ere, 1970 urtean 8 hektareako ustiategiak ziren. Hori dela eta 100 hektareatako ustiategietara pasa nahi zen, non esnearen produkzioarako 40 hektarea behar ziren

eta zerealen produkzioarako 15 hektarea. Gainera, ustiategiak mekanizatu nahi badira produkzioa handitzeko, derrigorrez hektarea gehiago behar dira, bestela ez du konpentsatzen. Prozesu hau egiteko, nekazarien kopurua gutxitzeaz gain, lurra kontzentratu behar dira.

Zenbait herrialdeetan helburuak lortzen dira, eta 80hamarkadarako 16hektaria lortu dute; hau da, nekazari askok utzi egin dute euren lurak. Ustiategi txikiak dituzten herrialdeek, aldiz, ez dute hektareak handitzea lortuko (Grezia eta Portugalen kasua adibidez, 5 hektarea dituztenak). Hori dela eta, herrialde hauei prozesu berdina jarraitzea eskatzen zaie, eta horretarako ditu laguntzak ematen zaizkio.

Hala ere desorekak jarraitu egiten du, izan ere, herrialde berriak sartu dira batez ere periferiako herrialdeak direnak; hegoaldea eta ekialdea bereziki. Herrialde hauek hektarea gutxi dituzte; Danimarka eta Ingalaterrak 40 hektarea, hegoaldekoek, aldiz, 5hektarea.

- 2) Eskulana: 10.000.000 nekazari daude eta diferentzia handiak ematen dira herrialdeen arabera; beti ere periferia eta erdialdearen artea. Alemaniak, Britania handiak, Belgikak, Holandak... (%1,3) nekazari dituzte; hau da, oso populazio gutxi egiten du lan nekazaritzan. Periferiako herrialdeek, aldiz, populazioaren %6-9 egiten du lan; hala nola, Espainia, Portugal; %15-12 Grezia... Holandak ustiategi handiak eta konpetitiboak lortu ditu, baina Espainiak aldiz, ez ditu ustiategi konpetitiboak lortu eta horrek desoreka sortzen du. Honetaz gain, formazioak diferentziak areagotzen ditu. Holandak %95 formazio espezializatua du; Portugalen aldiz, %5. Gainera, ekoizpen motak ere diferentzia areagotzen du. Holanda bezalako herrialdeen ekoizpena intentsiboa izaten da, periferian, aldiz, estentsiboa. Eskulanak ere desorekak sortzen ditu, izan ere, hainbat herrialdeetan eskulana familiarra da baina gero eta ohikoagoa da, soldatapekoak kontratatzea.

Azkenean, diferentzia garrantzitsua dagoela ikus daiteke, zentro eta periferiaren artean.

- Nekazal ekoizpenaren gehiketa: Prozesu hau Europak, hiru puntutan banatzen da:

- Espezializazioa: Espezializazioara jotzeko, aktibitate bat hartu behar da erreferentzia bezala, izan ere, aktibitate horren produkzioa hobetzen zentratzen da. Helburua beti ere produkzioa handitzea da.
- Mekanizazioa: Behien aktibitate batean espezializatuta, aktibitate hori mekanizatzea oso erreza da, eta horrela produkzioa handitzen da.
- Industria elikagaiarekin batera lana egitea: Hau da, produzitutako elikagaien industrietara egokitzea. Industria elikagaiak agintzen du nola eta zenbat egin.

Prozesu honen ondorioz, Europak nekazal aktibitate ezberdinetan espezializatzen ari dira. Gerrikoak sortzen dira, hau da, produkzio zehatz batean espezializatutako lurralde handiak sortzen dira, (espezializazioak klimaren ondoriozkoak) izaten dira gehienetan. Hori horrela izanda, zona hezeetan (larre ugariko zonak) esne behiak nagusitzen dira; zona hotzetan zerealak, zona menditsuetan artzaintza eta zona epeletan loreak, fruta eta mahastiak.

Honen ondorioz, hainbat produkzio gune handi sortu dira:

- Zonalde zerealistak: Espainiako bi mesetetan, Frantziako erdialdea, Alemania Rhin kenduta, hau da, erdialde eta ekialdea, Suitza hegoaldea, Danimarka, Po baila... ematen da. Arrazoi nagusia da negua hotza dela eta zereala negu hotzetara oso ondo egokitzen da. Udaberrian, aldiz, zonalde epelak izan behar du, gainera oso hezea ez den leku bat behar dute. Zereal nagusia zonalde hauetan (garia, garagarra, artoa, erremolatxa) (iparraldeko zonaldeetan). Zonalde hauetan bi produkzio batera egiten dituzte, lehenengoa negukoa eta bigarrena, ondoren datorrena izaten da. (Neguan) garia eta garagarra; (udan) artoa, soia, erremolatxa... leku hauek ez oso populatutako zonaldeak dira. Ustiategi handiak izaten dira, 50hektaria gainditzen dituzte edo 300hektaria egon daitezke (Arabako lautadan). Hauen egoera egokia da ustiategi handiak eta mekanizatuak izateko, gainera Europak ematen dizkien diru laguntzaren bidez finantzatzen dituzte ustiategiak.
- Abeltzaintza: Garrantzitsuena esne behietara dedikatzen dena da, eta horretarako belardi handi eta hezeak behar dira. Estatu batuetako zonalde euritsuenak bertan espezializatzen dira, hala nola; Bordele, Holandako kostak, Irlanda, Austria, Suitza, Kantabria... kosta aldean alegia. Esne behiaren sektorean ezberdintasun handiak daude, izan ere, produkzio handiak erdialdean kokatzen dira: Holanda inguruko zonaldeetan hain zuzen ere. Robotak eta mekanizazioak herrialde hauetatik datoz (ez da behar gizonaren eskulana behia jaisteko adibidez). Galizia inguruan, Asturiasen... atzerakada handia dago, iraganeko sistemarekin jarraitzen baita. Beste arazo bat, kuotaren arazoa da; zonalde honetako arazoak superproduktzioa da. Konponbide gisa, esna bota edo hauts bihurtzen dira esportatzeko. Hala ere, herrialde batzuk ondo bideratzen dute (Holanda eta Danimarka esate baterako), (gazta) asko egiten baitute. Beste zonaldeetan nekazariak zuzenean etxe aurrean botatzen utzi edo bota egiten dute.
- Artzaintza: Zonalde berezietan ematen da; menditsuetan: Gaztela-mantxa, Piriniotan, Euskal Herrian, Apeninoak, Grezian... Orokorrean artzantzaren aldaketak ez dira oso nabarmenak izan, normalean metodo tradizionalak erabiltzen dira.
- Txerri ustiategia: Garrantzitsuenak, Alemania, Holanda inguruetan daude. Txerri asko kontsumitzen da ekialdean. Azken urtetan, txerriaren hondarra oso kutsakorra denez, eta

ingurugiroko legeak zorrotzu direnez, txerri ustiategiak Kataluniara bideratu da, Lleidara hain zuzen.

- Zonalde mistoa: Hauek produkzio bat baino gehiago ustiatzen dute, hala nola; Britainia, Ingalaterrako iparraldean, Rhin ibaiaren inguruan Alemanian... Europa ekialdean bereziki: San Petersburgo, Mosku... Bertan ganaderitza eta nekazaritza konbinatzen dute. Teorian konbinaketa hau ona da baina arazoa mekanizatzeko garaian sortzen da. Hegoaldeko lurak ere zonalde mistoak dira. Hauek hiru produkzioa konbinatzen dituzte: mahatsa, olibondoa eta zerealak. Zonalde hauek pobreenak izaten dira.

Salbuespenak ere badaude, espezializazio handiko eskualde txikietan hain zuzen ere: 50º paralelotik behera ematen dira, Parisetik behera alegia. Aktibitate batean espezializatuak izugarriko merkatu arrakasta lortu dutenen guneak ematen dizkieten abantailak aprobetxatzen dituzte. Abantailak hauek fisikoak izaten dira: klima bereziki. Honetaz gain, eskulan oso formatuak eta espezializazio handia dute. Adibidez, Europan dagoen espezializazio handiena ardoa da, non zonalde hauetan ematen den. Gune hauek mugatuak dira eta oso konpetitiboak, errendimendu ekonomikoak oso handiak lortzen dituztenak.

Guzti honen ondorioz, Eurpak duen eredua zentro periferia da. Europako zentroa Belgika, Holanda da. Bertan lortzen dira errendimendu handienak: ustiategi handiagoak, modernagoak, populazio formatuagoak, intentsiboagoak, mekanizatuak... baitira. Periferiara goazen heinean, errendimenduak behera egiten du: ustiategiak txikiak, mekanizazio txikikoak, estentsiboa... Salbuespen bakarra, espezializazio txikiko zonaldeak dira, hegoaldekoak batez ere; Rhin, Champagne...

- PRODUKZIO ZONALDEAK:

- Highlands: Ipar latitudeetan egiten den nekazaritza da, oso pobrea eta zonaldera egokituta dago. Leningrad, Highlands... erditik gora ez dago nekazaritzarik, taiga edo tundra bezalako landareta ikus daiteke, izan ere bertan basoak desagertu egin ziren industrializazio prozesuaren ondorioz.
- Suedia: Europako nagusi diren zonaldeak dira. Zerealak oso ondo egokitzen dira, klima alde baitute. Jendea eta ganadua elikatzeko zereala izaten da. Iberiar Penintsulatik Errusiara doan nekazaritza mota da. Zonalde konpetitiboak dira
- Danimarka: zereala
- Ingalaterra medendebaldea: Zonalde epelagoa da, esne behietan espezializatuak, belardiak baitituzte.
- Holanda: Lautada oso zuzena da, ez dago mendirik. Frisona Behien espezializaziora jo dute. itsasoari irabazitako lurak ditu Holandak, hori dela eta produkzio gune handi bat da, baita

espezializatua ere, teknika eta produkzio mailan oso ona baitituzte. Lore ekoizpen handiena holandako iparraldeko herrialdeetan ematen da.

- Bosnia Herzegovina: Gure baserrien atzekoa da. Zonalde pobreak dira, esplotazio txikikoak. Nekazaritzaren zenbait esplotazio artzaintzarekin konbinatzen da
- Andaluzia: olibondoak monokultibo bezala.

Beraz bi zonalde konpetitibo daude; zereala eta esne behiarena. Hala ere zonalde mistoa ere badago. Iparraldeko lurretan, Alemania esate baterako, zereal asko kontsumitzen dute nahiz eta ganaderitzara bideratzen duten gehienbat.

8. HIRUGARREN SEKTOREA:

Europarrak gaur egun hirugarren sektoreaz bizi gara, hau da, lanbide garrantzitsuena hirugarren sektorekoa da. Hau horrela izanda, gutxi gorabehera populazioaren %70 zerbitzuetan egiten du lan (herrialderen arabera) honek esan nahi du %70ak ez duela ekoizten, ez dute produzitzen (nekazariak eta industriak produzitzen du baina zerbitzuak ez) honek ez du esan nahi ez duenik aberastasunak lortzen. Hala eta guztiz ere, bi salbuespen ematen dira:

- 1) Nekazaritzan espezializatutako zonaldeak: Enplegu asko ematen dute Errumania, Bulgaria, Polonia, Grezia...
- 2) Industrian espezializatutako herrialdeak: Bereziki Alemania, Austria, Euskal Herria eta Txekia. Hauek bezalako eskualdeak gutxi daude.

Hala ere, bi salbuespen hauetan zerbitzuetan lan egiten dutenak %60a da. Beraz, zatiketa honakoa izango litzateke: %70 zerbitzutan, nekazaritzan %6 eta industrian %2,4.

- Turismoa: Aurreko mendearen erdialdetik aurrera izugarrizko garrantzia hartzen hasi zen: arrazoiak:

- 1) Oporrak legez erregulatuta daude, beraz Europako langileria guztia hilabete bat jai du. Hori munduko bigarren gerratik aurrera aplikatzen hasi zen 1960ko hamarkadan alegia.
- 2) Desplazamendu masiboa: oporrak hilabete berdinean izaten dira, ondorioz, desplazamendu masiboak ematen dira.

- 3) Desplazamenduak industrializatutako herrialde batean hasi eta beste herrialde industrializatu batean bukatzen du, hau da, zonalde aberatsak dira jende gehienek bisitatzen dutena, eta bertara gehien dozenak .
 - 4) Turismoa geroz eta sektore ekonomiko garrantzitsuagoa bihurtzen ari da, bere inguruan lanpostu asko sortzen baititu.
- Europar Batasuneko turismoa: Turismoa, herrialde industrializatu batean hasi eta beste batean bukatzen du. Normalean turistari ez zaio gustatzen distantzia luzeak egitea; 1000km mugitzen gara batez ere (kotxez, egun bat) hegaldi gehienak 2-3 ordukoak izaten dira. Honen ondorioz, turismo gune nagusienak honako hauek dira:
 - 1) Europako hegoaldea: Katalunia, Dalmazia (Kroazia).
 - 2) Hego mendebaldea: Espainiako kostak, Kanariak.
 - 3) Ekialdea: Grezia baina bereziki Txekia.
 - 4) Mendebaldea: Karpatoak, Laponia, Finlandia, Noruegia.
 - Turismo irteera gehien egiten duen herrialdeak:
 - 1) Frantzia: 56 milioi turista mugitzen dira. Hauetako gehienak bere barrualdean egiten dute, ez dira Frantziatik kanpo ateratzen. Horri esker Frantzia da BPG gehien turismotik lortzen duena. Ateratzen diren minoria, Espainiara edo Magreb (emigranteak berain jatorrizko herrialdera buelta) joaten dira.
 - 2) Britania Handia: 54 milioi turista mugitzen dira. Hauek 30 milioi kanpora egiten dute. Gehienbat Espainiara.
 - 3) Alemania: 54 milioi turista eta 30 milioi inguru beste herrialde batera egiten dira. Hauek lurralde gehiagotara zabaltzen dira.
 - Turismoa jasotzen duten herrialdeak: Bereziki mediterranea da turismo gehien jasotzen duen zonaldea. Ardatz hau, Grezitik Huelva bitarteko herrialdeak dira. Mediterraneoak errekurtsio asko dauzka; mendiak daude, basoak, kultura arloan ere gauza asko daude bertan daude (Erroma, Grezia...). Eguzkia eta festaren bila ere etortzen dira.

Mediterraneo osoa turismoaz bizi da, batez ere, Mallorca, Atlantikoa, Kanariak, Portugal, Lisboa, Azoreak, Algarve... bertan egoten da turismo gehien.

Frantziako Mediterraneo kostalde urdin osoa; Montpellierren, Nizan eta Monakon ematen ematen da turismo asko.

Bigarren zonaldea, ipar Euskal Herria, Britainia, Alpeak, Chamonix eta Paris bitarte doa. Korsika ere oso turistikoa da.

- Turismo gutxien jasotzen duten herrialdeak: Italiako kostak ez da hain turistikoa, nahiz eta bertako patrimonio historikoak oso bisitatuak diren.

Mendialdea: Finlandia ez da turistikoa, iparraldea izan ezik, Laponia. Norvegiako fiordoak, aldiz, oso turistikoak dira.

Belgika eta bere inguruan, enparantzak dira politenak. Zonalde horietan Brujas, Anberes, Holandan Amsterdam akaparatu dute turismo guztia. Baina orokorrean ez da oso turistikoa.

Danimarka eta Suedia ez dira oso turistikoak. Alemanian, ordea, mendi zonaldea Ohian Beltza inguruan, Bavariako zona txikia eta Rhin mendebalde ingurua orokorrean ez da oso turistikoa.

Britania handian, batez ere turistikoa dena natura guneak dira, hala nola; Gales, Eskozia, Highlands, Edinburgo... baina Britania Handitik turistikoa dena Londres da. Hortik aurrera Oxford edo Cambridge bezalako hiriak daude.

Irlandan, aldiz, Dublin hiria eta Kork baino menebalderago ematen da turismoa, nahiz eta despopulatua izan, kostaldeko labar eta herri txikiak erakargarriak dira.

9. EUROPAKO HIRIAK

Europako hiri eredua, batez ere hiri eredu modernoa, oso inportantea da, eredu bat markatu zutelako kolonizazioaren bitartez. Ezaugarriak:

1) Historiaren eragina: Europan hiri historikoak bere osotasunean mantendu direnak badaude, baina oso gutxi, eta batez ere oso txikiak dira. Hiri historiko handi bat aurkitzeko zonalde harresituak izaten dira. Hiri historiko txiki hauek aurkitzeko, berriz, zonalde berezietara joan behar da: Venezia (padura bat da), Ferrara... esate baterako.

Historiaren eragina garrantzitsua da, bi arazoengatik; batetik, hiri modelo berdina da leku guztietan: alde zaharrek markatzen dituzte diferentziak batetik bestera; bestetik: gelditzen diren ondare historiko horiek hiriaren marka bihurtzen dira (alde zaharrak...).

→ Hirien arteko desberdintasuna: Garai historiko bakoitzak hiriarengan eragin ezberdinak izan ditu.

- Erromatar hiriak dira garrantzitsuenak eta hauek inperio kanpamenduaren bidez zabalduta eta eraiki zituzten; hauen kanpamenduak bi ardatzetan antolatzen ziren *cardus* eta *decumanus*. Hiri erromatarrek leku askotan ditugu, baina nagusienak; Po bailaran daude: Modenan. Hiri

guztia ardatz baten inguruan kontzentratzen dira eta Erdi Aroko hiriek ere horrelako ereduak jarraitzen dituzte.

- Hiri arabiarra: Oso plano irregularrak izaten dituzte; ez dago kalerik eta hauek ez dira garrantzitsuenak, garrantzitsuena etxe barruko egiturak baitira.
- Hiri gotikoa: Garai honetan (XI,XII,XIII.mendean) Europako hiri gehienak sortu ziren. Hiri egitura errepresentatuena da estatuan, Frantzia eta Italian. Hiri egitura hauek berezitasun batzuk ditu: hiriaren goiko partean elementu nobleak (jauregiak...) agertzen dira, jainkoaren hurbil egoteko, eta kaleetan gremioak kokatzen dira. Estructura defentsiboak aprobetxatzen dituzte, adibidez; La Guardia, Morella, Hondarribia...
- Errenazimenduan erromatarren garaiko hiriak egiten zituzten baina berezitasun batekin: etxe multzo handiak eraikitzen dituztela.
- Hiri barrokoak, aldiz, forma kurboak dira nagusi.
- Neoklasikoarekin, hiri modernoak

Hirien ikurra: Ondare historikoak gaur egun baloratu egiten diren arren, hau ez da beti berdina izan.

Garai askotan, ondare historikoak hiri ezegoki moduan industen dira. Alde zaharrak bota egiten dira, kasu gehienetan eta batez ere XVIII-XIX.mendean zehar. Hiria hazten hasten direnez, leku gehiago behar denez botatzen dira. Adibidez: Bilbo, Iruña, Baiona.. Gasteizen aldiz, alde zaharrak eta estructura gotikoa mantendu egin da. Hau Europa guztian gertatzen da, salbuespenak salbuespen, hala nola: Bartzelonan barrio gotikoa. Hiri hauek babesten hasten dira XX.mendean zehar, eta gaur egun babestuak daude. Halaeta guztiz ere, hiri hauetan kontserbatu direnak elementu nobleak (mantentzea merezi zutenak) eta batez ere katedralak, ospitalerenbat, operak....

- 3) **Koloniatan (eraztunetan) osatutako hiriak:** XVIII.mende bukaeran eta XIX.hasieran hazkunde demografikoa eman zen. Ondorioz, jendea alde zaharrean bizitzen hasi zen, hori dela eta XIX.mende erdialdetik aurrea, oso denbora gutxian alde zaharrak asko populatzen dira eta eskaera horri aurre egiteko etxeak bota egiten dira, altuera handiagokoak eraikitzeko, hau da, birmoldatu egiten dira. Epe laburrean honek balio du, baina epe ertainean, industrializazioak gora egiten duenean, honek ez du balio; jende gehiago etxea behar baitu eta beste klase sozial bat sortu baita: industrializazioaren ondorioz aberastu diren burgesia. Hauek ez dute pilatuta bizi nahi, ondorioz, hiriaren harresiak botatzen dira eta zabalpenak ematen dira: abenidak, zumardiak, Gran biak... sortzen dira. Bulebarrean normalean burgesiak bizi dira (adibidez: Bilbo). Bulebar hauek potentzia ekonomikoa dutenek, hau da burgesiek egingo dute. Bulebarrez gain, beste zabalkuntza batzuk gertatuko dira, errealitatearen desberdinekin. Horrela errealitate desberdinak dituzten auzo desberdinez osatuta egongo dira hiriak. Joera hau II. Mundu Gerraren ondorioz, eta bereziki 60ko hamarkada geroztik, II.industrializazioaren testuinguruan aldatuko da. Garai honetan nekazar

exodoa erabatekoa izango da, eta horrela bitartean zeuden hutsu giztiak bete egingo dira. Europako gaur egungo hiriak giri modernoak dira, bereziki, 60ko hamarkadatik aurrera osatuz joan zirenak, adibidez; Bilbok eta Bartzelonak bere alde zaharra du eta gero bete zabaltzearen ondorioz sortutako etxebizitza berriak. Guzti honen ondoren ekialdeko zonaldeko desnkontrol urbanistikoa etorri zen.

Beraz, 60ko hamarkadatik aurrera hiriak hazi egin ziren eta hauek erabat urbanoak ziren. Erabateko urbanizazio hori eraztunez osatuta dago, lehena hirigintzarena guztiz urbanizatua eta funtzio bakarra, etxebizitzarena dena. Honen barruan sailkapenak egin daitezke: zentroak eta periferia (jende gazteagoa bizi da) diferentzia nagusia bi hauen artean lurraren prezioa da; zentrotik aldentzen garen heinean prezioak behera doaz.

Bigarren eraztuna, zabalagoa edo txikiagoa izan daiteke: periferia da. Bertan etxeak, industriak, nekazaritza, komertzioak... egon daitezke. Emen erabileraren nahasketa dago.

Europako hirian dena nahasita agertzen da. Estatu Batuetan, klase sozialak oso markatuak ditu, Europan, aldiz, hori ez da gertatzen nahiz eta gaur egun, hori pizten hasi den.

3 **Hiri aglomerazioa:** Hiria hazitzen danean, askotan, batez ere hiri inportanteetan, inguruko hiri txikiak hazten edo sortzen hasten dira: ondorioz nukle garrantzitsu bat dago eta inguruan beste gune urbanoak daude. Honek hiri aglomerazioak sortzen ditu.

4 **Hiri aglomerazioak Europan:**

- Hiri sateliteak: Bereziki mediterraneo aldean ematen dira; Espainia, Grezian... ematen dira. Hiri sateliteak sortzen dira hiri nagusiaren hazkundearen ondorioz eta honekin batera, inolako kontrol edo gutxirekin sortuak izan dira, hau da, planifikazio gabe. Hiri hauek sortzen dira, abantaila espekulatibo bat aprobetxatuz. 20.000-100.000 biztanle bitarteko neurria dute hiri hauek eta errepidearen eskema markatuz sortzen dira, adibidez Madril. 80ko hamarkadatik aurrera hiri hauen baldintzak hobetzea izan zen helburua; hala nola, garraioak eraikitzen.
- Hiri berriak: Hiri berriak, berez, kontzeptu berdina da: hiri handiaren ondoan sortutako hiriak, baina hauek planifikatuta eta bultzatuak izan dira. Adibidez Londres: belardiak inguratzen mantentzen saiatzen da. 50-100.000 biztanle. Hiriak industria leku eta lanetatik hurbil daude. Parkeak etab. Honetaz gain, konexio publikoak oso onak dituzte. Eredu hau zabaltzen ari da Europa guztian zehar. Gertatu dena da, populazioaren hazkundearekin, batzuetan ondo planifikatu zirela eta beste batzuetan gaizki, esate baterako Espainian gaizki.

4 **Hiri eskualdeak:** Zenbait kasutan, hirigintzaren hazkundera hainbestekoa izan da, askotan hiri aglomerazioak beraien artean elkartzen direla, eta hauek hiri eskualdeak edo megalopolisak

sortzen ditutze. Europan tamaina honetakoak ez ditugu baina, Rhin osoan, Belgika aldera, eskualdeak elkarrekiko gertu daude; baita herrialde baxuetako Holanda. Emen hiri konzentrazioa inportantea ematen da.

- Holanda: Europako hiri garrantzitsu batzuk emen daude: Rotterdam, Amsterdam, Leyde... bestetik, Europak dituzten funtzio nagusienak emen finkatzen dira: porturik garrantzitsuena Rotterdam, nazioarteko tribunala la Haya, petroleoa ere, Amsterdam informatika mailan oso garrantzitsuena, Sehipel aeroportua, mundu 6.artean... bestetik, zonalde honetan nekazaritza handia dago; gazta batez ere.

Rotterdametik Amsterdamera 50km daude. Hau lortzeko:

- o Espezializazioa eskualde bakoitzean: La haya tribunala, Amsterdam administratiboa, turistikoak kostan, Utrecht garraioak...
- o Lurralde antolamendua zorrotza: lurra oso garestia da, lurra oso ondo planifikatzen da.
- o Garraio publikoa. Hiri guztiak komunikatzen dira etengabe. Denbora luzeena ez da pasatzen 20 minutura.

10. EUROPAKO HIRI EREDUA:

Patroi bera jarraitzen dute Europako hiri eredu gehienek. Hala ere, badaude diferentzia batzuk zona batzuk besteetatik bereizten dituztenak.

1) Eredu mediterranearra: Espainian, Italia iparraldean, grezian, Portugalen eta Frantziako zenbait hirietan aurki daiteke. Hiri baten hazkunde azkarra adierazten du eredu honek. 60. Urte inguruan hazten hasitakoak dira, bapatekoan, lurralde antolaketa mailako arautegi finkoa jarraitu gabe. Emaizta, hiri barneko dentsitate altuak dira, bloke altuak, zonalde berde eza, erreka eta ibaien saneamendu falta, garraio azpiegitura falta, etab. da. Biltzen duen beste fenomeno bat da inguruaren hustuketa probokatzuz sortzen den hiri hazkundea dela. Madrid, Atenas esaterako.

2) Europa erdialdeko hiri: gehienbat 70. Hamarkadan hazitakoak dira. Lurralde antolaketaren maila altuagoa dute, baita hiri hazkundearena ere, hiriak zerbitzuekin hornituz eta garraioa planifikatuz, besteak beste. Berezitasuna zentroek askoz dentsitate gutxiago dutela Mediterraneo ereduari konparatuta da, hiri erdiak 4 edo 5 pisuko altuerako izanik. Zonalde berdeak daude hiri barruan, parke asko. Jendea periferian bizi da, zentroarekin ondo komunikatuak daudela, trena erabiliz. Esaterako,

Danimarkan punta batetik Copenhagera ordu erdiro daude trenak. Presentzia baxuagoa da hiri hauetan, zabalduagoa eta beraz habitableagoa. Hiri txikiagoak dira orokorrean.

3) Hiri britainiarra: Europa erdialdearen eredu bera, baina hiriaren nolabaiteko altuera oraindik

baxuagoa da, dentsitate baxuagokoa eta periferia oraindik zabalagoa. Errepide estuak, garraioa asko erabili behar dute. *desabantelatu eremu oso zabalak okupatzen ditu gainera zabalera hiruak dalar mugikortasun arazoak → lotzeko beharrezko*

4) Eredu soviatar edo postsoviatarra: Erabateko planifikazioa da nagusi. Gizartearekiko apustua ez da indibiduala, kolektiboa baizik. Blokeak dira ^{oimgoitzakoa} ohikoak; sinpleak dira eta zerbitzuak kontzentratzen dira haietan (dendak, ile apaindegiak). Zonalde berdeak daude etxeetatik hurbil. Industria gunek

etxeguneetatik hurbil daude, baita ere, garraioa ahalik eta gutxien erabiltzeko. Garraio publikoaren garrantzia, Moskun esaterako metroa. Dirua publikoan inbertitu da. *zentral hidroelektrikoa eta zentral termikoetatik hurbil*

5) Eredu nordikoa: Eredu trinkoa, eraikin altuak, blokeak, berogailuarekin ondo hornituak egoteko.

~~Komunikazioa lur azpitik~~, neguan bizitza lur azpian egiten da. *portutia hurbil egotem dira ormiduragotia* *terniko egotia or hidro or saltatu*

- EUROPAKO MENDEBALDEKO HIRIEN LAU ADIBIDE

- STUTTGART: Rihn korridorearen eta Munich artean dagoen hiri alemaniarra da. 600.000 biztanle ditu gutxi gorabehera eta bere gune periurbanoak gehiturik 1.000.000 biztanle inguru ditu. Hiri alemaniarra izanik, "kotxearen hiria" deitua izan da, Mercedes eta Porsche enpresak bertakoak baitira. Haue gain, Kodak bezalako multinazionalak presentzia handia dute hiri honetan eta jatorriz hiri honetakoak dira. Hiria oihan beltza eta Neckar ibaiaren artean sortzen den hutsune batean kokatzen da konkretuki.

Hiri honek gune defentsiboa edo gotikoa erdian eta industria gunek (Europako potenteenatarikoak) ibaien ondoan eta kanpo aldea ditu. Hiriak beraz, oihan bitartean eta poligonoen bitartean geratzen den tartea betetzen du. Eratzunez hazten den hiria da.

Multinazionalak euren egoitzak kasko historikoan dituzte, Merzedesek esaterako, baina industria produkzioa kanpoan dute kokatuta. Kasko historiko peatonala eta zerbitzuez bizi dena dugu, turismoa bereganatuz. Kasko historikoan ez da jende asko bizi. Beraz, industria gunek kanpoan izanda, arazo nagusia etengabeko mobilitatea da, populazioaren bizitokietatik lantokira lekualdatzea, hiri honetan jendea etengabe mugitzen ari da. Tranbiaren alde egin dute, sistema erradiala. Tranbia hauek zentroan elkartzen dira, transbordoak egin ahal izateko. Alemaniako hiri guztiek edo gehienek jarraitzen dute eskema hau.

- PO BAILARA: Lautada bat da Apenino eta Alpeen artekoa eta bertan eskualde desberdinak daude. Guk Emilia Romagna eskualdea aztertuko dugu. Eskualde hau Milanetik behera Bolonia aldera gelditzen den esparrua da. Bertako hiriak distantzia berdinean daude euren arten gutxi gorabehera, jatorriz erromatarren kanpamentu militarrek dira. Gehienek populazio berdintsuak dituzte, 50. 000 batez beste. Salbuespena Bolonia da 500.000 biztanle inguru ditu eta zonalde

guztiaren buru erlatiboa da. Zonalde hau bere garaian Europako aberatsena izan zen errenta per capita altuenekin, industria gunez beteta dagoelako, bertako industriaz beteta. Multinazionalei aurre egiteko enpresa txikien kolaborazioa bultzatu zen.

Bi ardatzen artean estrukturatutako hiriak dira (cardus decumanus). Hiri- estatuak izan dira guztiak; jauregi dukala eta baptisterioa guztiek dituzte, esaterako. Hiri hauek lehiatu ordez beraien artean kolaboratu eta bakoitzak erdi aroan bezala bere nortasuna mantendu dute, hazkunde progresiboa izanik denek. Bolonia ere, handiena dena, dinamika honetan sartzen da.

- MADRIL: Jatorriz hiri berri bat da Madrilekoa. Felipe II.na tronuan zegoenean konturatzen da Iberiar Penintsularen puntu zentrala Madril dela, ondorioz, bertan zegoen gaztelu musulman batean jarri zuen bere sedea eta inperioa.

Madrilek benetako garrantzia hartzen hasten da Carlos III.narekin XIX.mendean. Puerta del Solen dago 0 puntua .

Madril nahiko berria denez, ez du alde zaharrik; El Retiro, El Prado... bertan zeuden jauregiak XVIII-XIX.mendean, eta hori hartzen da alde zahar bezala.

Madril XX.mende hasieran Bartzelona hiria baino txikiagoa zen eta benetako hazkundera (Gran viaren sorrera), batez ere, Frankoren garaian hasten da, batez ere 60ko hamarkadatik aurrera. Garai hartan estatuak indarra dute industrializazioa bertan jartzeko (garai hartan Bartzelona eta Euskal Herria industrializatu zegoen eta Madril ez). Beraz, frankok bertako industrializazioa bultzatzen du eta garai gutxian biztanleria asko hazten da 1.000.000 biztanletik 5.000.000tara. 1960-1975 urte bitartean. (Gaztela Mantxa hustu egiten da eta bertako populazioa Madrilerara joaten da).

Madrilen kale nagusi bakarra dago, El paseo de la Castellana hain zuzen ere. Blokeak eta blokeak eraikitzen dira, altuera handikoak, espazio berderik gabe... ardatz honen inguruan. Oso azkar hazi zen eta oso era kontzentratu batean.

- BIRMINGHAM: Britania handiko bigarren hiria da, bertan 1.100.000 biztanle bizi dira.

Birmingham hiri berri da, lehenengo industrializazioaren ondorioz sortutakoa hain zuzen ere. Hiri hauek garai hartan, ura behar zuten, izan ere ehungintza egiten zuten ura behar zuten eta fabrikak erreka ondoan jartzen zituzten.

Hiria auzoka osatzen da; auzoen artean konexio handirik gabe. Bertan, industria gune ezberdinak daude, izan ere, garai hartan industria ondoan bizi behar ziren. Azkeneko industrializazioarekin, Birminghameko auzoetan etxeak eta industria nahasik aurkitzen da. Ondorioz, 80ko hamarkadan hiri bat osatzeko plana egiten da. Horretarako, zerbitzu ezberdinak egiten dira; komunikabideak, aireportuak.... Garrantzitsuena zentro bat eraikitze da. Margaret Thatcher jartzen da gobernuan eta ondorioz ez da plana aurrera eramaten.

Liberalistak gobernuan daudela, prozesua martxan jartzen dute; aireportua bultzatzen, tertziarizazio prozesua osatzen dute (jauregiak, kongresuak...) eta gutxi gorabehera hiri bat osatzen saiatuko dira.

Birmingham atlantiar aldeko hiri industrialen birmoldaketaren adibide da, Bilbo eta Manchester antzera. Hiri txikiak dira baino asko zabaltzen dira.

Zentroak penatonaletan dira, eta garraioaren komunikazioa asko handitzen da.

Praktika:

Nekazal zonalde honen inguruan azaldu:

- Zer ekoizpen mota izan daiteke
- Non ematen da era honetako ekoizpena
- Zer ezaugarriak dituzte ustiategi mota hauek
- Nola egokitu zira Europako nekazal politikaren eskakizunetara?. Eta zergatik?
- Zer etorkizuna dute?

- 1) Zereala, Suitza: koltza Castilla-Rusia bitarte doa. Jende gutxi bizi da bertan, esplotazioak handiagoak dira. 200-300hektarea. Espezializazioa dute: zerealetan. Bi ekoizpen urtean zehar.
- 2) Zereala: Garaia. Danimarka
- 3) Frisoiak, Holanda: Zonalde hezeagoak direnez, esne behiak Atlantian, mendi zonaldeetan... kuota sistema dituzte herrialdearen arabera, eta Holanda da aurreratuen.
- 4) Artoa, Britainia: Zonalde mistoa da. Ganaderitza eta nekazaritza egiten dira. Bi misto mota: alde batetik, mediterranearra eta bestetik espezializatuak, argazki honetan adierazten den bezala, non etxebizitza eta ganaderitza konbinatzen diren. Rhin, Atlantia... zonaldeetan ematen da.
- 5) Holandako tulipanak: Espezializazio handiko lekua da.
- 6) Garaia, zonalde zerealista: Castilla-Rusia bitarte doa. Jende gutxi bizi da bertan, esplotazioak handiagoak dira. 200-300 hektarea. Espezializazio dute: zerealetan eta bi ekoizpen egiten dira urtean zehar. Zonalde handi hauek, europarren beharretara egokitu dira.

- 7) Oliboak, mediterranea: Olibondo hauen arazoa: ekoizpen mota; estentsiboa da; eskulana formatu gabe; garai askotan geldu; errenta per capita baxuak; ez dira lurren jabe... Produktzioa eskasa dute eta abandonatzen ari diren zonaldeak dira. Europak hauek jubilatzea nahi dute
- 8) Champagne: Espezializazioa.
- 9) Lejido, almeria, negutegiak: Eguzki asko dagonez, landare tropikala kultibatzen dituzte, hau da, era horretako espezializazioa (tomatea)
- 10) Euskal herria, Arabako errioxa, ardoa: Nekazariak formatu egin dira, marketing handia. Zonalde konpetitiboenak, inbertsio handiak egon direnak eta merkatu globalera egokitu dira.

- Europako hiriak praktika:

Galdera: zer hiri eredeuan sailkatuko zenuke

Eredu honen ezaugarri nagusiak

Zer hiri izan daiteke

- 1) Atenas: Eredua: mediterranearra. (madrilekin konparatu deguna: 60ko hamarkada, zabalpen handia, zonalde berde falta..)
- 2) Kopenhage kanpoaldea. Europa erdialdea: zonalde berdeak, planifikatuagoak, hiriak altuera txikikoak, garraioak ondo, jendeari kanpoaldea bizitzea gustatzen zaio.
- 3) Kopenhage barnealdea.
- 4) Kopenhage: herrialde baxuak, peatonalak
- 5) Bukarest: lanpostutik hurbil, garraioak ondo, hirigintza ondo, industria hirri barruan.
- 6) Bukarest: etxeak sinpleak, blokeak, zonalde berdeak.
- 7) Britania: zentroa bere jardinak, hiriaren etengabeko zabalpena, Oxford.
- 8) Oxford. Herri baxuak, jardinak